

kolaborazioak

Arazoa, gaur, ez da «hirugarren bidearen beharra»; PNV eta EA noiz edo nola lortuko ote den estrategia abertzalera biltzea baizik

Rafa Diezek joan den astean Tolosako «Gaitzaundi» enean eman zuten hitzaldiak, oihartzun zabala bildu du ageri denez. Eta jasaten dugun geldidune iraunkor honetan ez da merezimendu urria. Hizlariaren esanak xuxen ulertu ote diren aztertzea besterik lizateke osoki. Hitzaldi garrantzitsu hartan norik berea bilatu baitu.

Oso adierazgarria da «Egunkaria»k eta EGINek nolazpait bederen «Amatius», «Autodeterminazioaren Biltzarra» eta «Euskaria» taldeen izenean P. Azparrenek argitara duen artikulua.

Euskal politika *impasse* nabarmen batean dagoela garbi dago. Honaino denok etor bide gintezke batera.

Inperialismo franko-españolak sortu du *impasse* hori, ordea, eta ez abertzaleok. Hemen, azken funtsean, ikutu nahi ez dena marko juridiko bikuna baita: *España es una e indivisible, la France est une e indivisible*.

Gakoa hor dago. Baina hau ez da askotan aipatzen, Espainiak eta Frantziak legeztatu duten markoa dago, aldakaitz eta sakratu. Geldikeria guztien azken otopoia hor dago.

Marko ukigaitz horren aurrean nola joka? Hemen sortzen dira gure arteko desberdintasunak.

Batzuek, erabaki ezkutu hau ongi edo erdipurdi mozorrotuz, marko franko-español zatitzaile horren barruan jokatzea erabaki dute. Beste batzuek, berriz, marko hori gainditzea hartu dute ezinbestezko abiapuntu.



Hirugarren bidea mintzagai

Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI» • Idazlea

Ez daude, beraz, zazpi jorkabide, ez lau, eta ez hiru ere. Biga daude, Rafak argiro azpimarratu zuenez. Estrategikoki bi aukera daude: legetasun franko-españolaren barruan jokatzea, bata; eta legetasun horren kontra hitzez eta egitez jokatuz, beste marko juridiko baten bila joatea, bestea.

Militante españolistak, logikaz ere espero zitekeenez, «eroso» sentitzen dira «*región norteña vasco-navarra*» delakoaren barruan. Eta ez dute marko hori gainditu beharrik ulertzen, ez bultzatzen.

Militante hypno-abertzaleak (alegia, amets egitean, bai, abertzale sutsu. Baina eguneroko politikagintza errealean autonomista epel, eta legalista sutsu, jokatzen duten autonomistek), ez omen dute marko arrotz bikun hau maite, eta ez onartzen ere. Baina berorien buruzagiak behinola diximulurik gabe aitortu zuenez,

«abertzaleak» dira, (bai horixe!). Baina *en el plano de las ideas* bakarrik; eta bihar edo etzi (ez gaur); eta erdaraz bizi dira, «oraingo» noski; eta anti-abertzaleekin instituzioetan eta paktoetan osoki bat eginik ari dira, «taktika» hutesz, jakina.

Nabardura batzuk salbu, PNV eta EA alderdiek, gaur egun, nota honetako hypno-abertzaleak dituzte nagusi eta gidari.

Bihar, etzidamu edo geurtz, ez omen da berdin izango. Aldatu egingo omen dira. Orduan erakutsiko omen dizkiete hortzak españolistei. Eta guk, Iparterrek bezala mintzatuz, hau diogu: «Agian bai».

«Hirugarren esparruaren beharra», horretara, ez dugu denok ulertzen. Imperialismoan egon diren herri guztien lehenengo helburua (kronologikoki lehenengoa) nazio-askapena izaten baita. Eta ondorioz: lehenengo urratsa, bai hemen eta bai nonahi, Auto-Determinazio

prozesua bideratzea eta lortzea baita.

Abertzaleok horretan gaude. Autonomistak ez. Autonomistek boikotatu egiten dute Auto-Determinazioa, nazio askatasuna maixeatzen duten bezalaxe (*con la independencia tendríamos que comer berza*). Autonomistak ados dira gaur dagoen marko bikun honen barruan. *Se sienten cómodos ya*.

Aspaldidanik proposatu izan dugu batzuek, Auto Determinazioa bideratu eta gauzatu arte, elkaturik jokatzea behar genukeela abertzaleok. Niri dagokidenez, bederen, orain dela 30 urtez geroztik errepikatu izan dut gauza bera.

Baina beti egon da bide hori baztertzeko arrazoinen bat. Orain dela urte mordo bat, klase-batasuna hautsiko lukeen *frentismo inter-klasista* izan zen madarikatua. Aski gorri ez izatea izan zen batzuen aldetikako aitzakia eta otopoia.

Urte beretan, gaurko autonomisten arbasoek hau esan ohi ziguten: «*No podemos poner en peligro el Pacto de Bayona y nuestras buenas relaciones con el PSOE*».

Gero gailendu zen Arzalluzen «txokolate» famatu hori: «*Todas las alianzas tienen ventajas e inconvenientes. Por consiguiente Pacto de Ajuria-Enea*».

Eta horretan gaude. Nahiz ELA-LAB elkarketa esperantzagarria hor sorturik egon, eta gauzak errotik aldatuko direla pentsatzeko oinarria egon.

Arazoa, beraz, gaur, ez da «hirugarren bidearen beharra»; PNV eta EA noiz eta nola lortuko ote den estrategia abertzalera biltzea baizik. Alde horretatik begirata, hirugarren bide horren beharrik ere ez dago, hain zuzen. Eta «esparrugisa ere, maingu da jaiotzaz».

Arazoa, bukatzeko, ez da «ideien mailan» erabakiko. Ez. Erabakizun hau, euskal problema osoa bezalaxe, maila politiko-ekonomiko-sozial-kulturean jokatzen ari da, praxian. Eta ez eztabaida teoriko abstrakto eta hutsten alorrean. Partida herrian behar da irabazi, eta Kondairaren zelaian.

Garbikiago mintzatuz: Auto-Determinazioaren gudu horrek borrokalariai behar ditu, herriarekin bat egingo duen jendea. Arazo hau *en el plano de las ideas* erabakiko dela uste duten ameslariak, aldeko agerturik ere, ia-ia sobera ditugula esango nuke agian.

Historiadores por la paz y la libertad

LOS ABAJO FIRMANTES •

No se trata sólo de que los jueces no deben condenar intentos de negociar. Se trata del precedente inadmisibile de que los jueces procesen actitudes y acciones políticas legítimas

Quienes por razón de oficio o vocación hemos tenido la ocasión de conocer la historia de este y otros pueblos sabemos del dolor y enormes sacrificios con que se alcanzan las mejoras sociales y políticas, detrás de las cuales está siempre la voluntad de progreso, paz y libertad de los pueblos. Tal vez no sea ésta la hora ni éste el peor momento de la historia de los vascos, pero sí es nuestra hora y nuestro momento y, participando en él, no podemos eludir pronunciarnos sobre algunos aspectos tan graves para el futuro de la paz y el presente de la libertad, amenazadas

ahora por una acción judicial sin justificación.

Todas las encuestas de opinión de los últimos años muestran porcentajes mayoritarios de ciudadanos y ciudadanas vascas que desean que el conflicto actual termine mediante el diálogo y la negociación, sin vencedores ni vencidos. Numerosas organizaciones y grupos de todo el abanico social se expresan constantemente en la misma dirección. Asimismo, las miradas y el pensamiento de muchos están puestos en situaciones semejantes, en otros lugares del mundo, donde se han iniciado o culminado procesos de diálogo y negocia-

ción de paz. No cabe duda de que los vascos quieren la paz. También quieren la libertad. Sin embargo, ambas están todavía lejos de nuestro horizonte actual, porque un grave conflicto de intereses perjudica su obtención desde el siglo pasado y todas las salidas han sido hasta hoy insatisfactorias e insuficientes.

Por estas razones, en el momento en que varios políticos vascos están siendo juzgados, en y por el Estado español, tan sólo por haber expuesto públicamente su propia fórmula de paz y libertad con una de esas propuestas de diálogo y negociación que pueden conducirnos a ellas, es nuestro

deber expresar un punto de vista cada vez más extendido:

Ni los jueces, ni poder judicial alguno, están legitimados para encausar las ideas políticas o su libre expresión. Sólo los pueblos en el presente, y la historia en el futuro, son tribunales válidos a los que deben someterse quienes con su militancia política —cualquiera de ellas— aspiran a mejorar la vida de sus pueblos. No se trata sólo de que los jueces no deben condenar intentos de negociar, vengan de donde vengan, sino de algo más defectuoso. Se trata del precedente inadmisibile de que los jueces procesen actitudes y acciones políticas legítimas.

Por lo tanto, exponemos nuestra repulsa formal y enérgica ante este juicio de Madrid contra los miembros de Herri Batasuna, que se han limitado a publicar opi-

niones y criterios políticos, solicitando el sobrestamiento de la causa abierta en su contra. Cualquier decisión que no sea la inmediata anulación del juicio sería un gravísimo precedente y un obstáculo, tal vez insalvable, en la necesaria normalización del debate político vasco. Representaría, además, una injerencia del poder judicial contra el pensamiento político y un atentado contra la auténtica libertad y la paz verdadera.

Firman el escrito: *Jose-mari Lorenzo Espinosa, Xosé Estevez, Rafa Mieza, José Luis Orella Unzué, Arturo Ortega, Iñaki Egaña, José Mari Esparza, Sonia Polo, Gorka Vierje Ortiz, Joseba Zuazo, Xabier Peñalber, Mikel Arizleta, José Antonio Egidio, Alex Ugalde Zubiri, Alfredo Moraza, Xabier Palacios, Alizia Stürtze Mendia e Iñaki González de Garai Ugalde*.